

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5503

AGINDUA, 2022ko abenduaren 2koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, COVID-19aren pandemiak eragindako kalteak direla-eta eguneroko informazioa ematen duten komunikabideentzako laguntzen 2022ko deialdiaren dirulaguntza eskaerak ebazten dituena.

AURREKARIAK

1.– 2022ko urriaren 18an EHAAan argitara eman zen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko urriaren 11ko Agindua, COVID-19aren pandemiak eragindako kalteak direla-eta eguneroko informazioa ematen duten komunikabideentzako 2022ko laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duena.

2.– Epe barruan eta behar bezala aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatutako entitateei dagozkien dirulaguntzak ematea, zehazten diren zenbatekoen arabera.

Bigarrena.– II. eranskineko eskabideak ez onartzea bertan agertzen den arrazoia dela eta.

Hirugarrena.– 2022ko urriaren 11ko Aginduan arautako dirulaguntzak jasotzen dituztenek, aginduaren 11. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte.

Laugarrena.– Dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da.

Bosgarrena.– Honako hauek hartuko dira ez-betetzetzat:

a) 2022ko urriaren 11ko Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko egintzan ezarritakoak ez betetzea.

b) Dirulaguntzen arloko beste edozein xedapenetan oro har ezarritako beste edozein kasu, bereziki, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako ez-betetzeak.

Ez-betetzereen bat gertatu dela egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta dirulaguntza ordaintzen den unetik aurrera aplikatu beharreko legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere bi arau hauen arabera: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testuategina, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

Seigarrena.– Interesdun guztiei agindu honen berri emango zaie banan-banan. Nolanahi ere, EHAAan ere argitaratuko da.

2022ko abenduaren 22a, osteguna

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 2a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

I. ERANSKINA

EMANDADKO DIRULAGUNTZAK

Espedientea	Eskatzailea	IFZ	Komunikabidea	Dirulaguntza
013-EIK-2022	Bilbo Handia Ikusentzunezkoak S.A.	A95463865	Hamaika	43.343,65
008-EIK-2022	Diario El Correo S.A.	A48536858	El Correo	1.783.281,73
015-EIK-2022	Ediciones Izoria 2004 S.L.	B01373489	Diario de Noticias de Álava	139.318,89
010-EIK-2022	Editorial Iparraguirre S.A.	A48082440	Deia	547.987,62
005-EIK-2022	Euskal Editorea S.L.	B20809042	Berria	287.925,70
009-EIK-2022	Eusko Media S.L.	B95257754	Onda Vasca	83.591,33
026-EIK-2022	FM Nervion S.A.	A48197321	Nervión + Gorbea	278.637,77
027-EIK-2022	Goiena Komunikazio Taldea, Koop. E.	F20704375	Goiena Telebista	30.959,75
018-EIK-2022	Goierriko Ikuskari S.L.	B20806840	Grupo Infosare	16.511,87
029-EIK-2022	Iniciativas de Comunicación Social S.L.	B48515357	Tele7	34.055,73
022-EIK-2022	Irratibide S.A.	A48111819	Bizkaia Irratia	15.479,88
028-EIK-2022	Lea-Artibaialdeko Hedabideak, S.L.	B95284857	Hitza.eus / Ataria.eus	11.351,91
012-EIK-2022	Prensa Digital Euskadi y Navarra, S.L.	B01510171	Eldiario.es	133.126,94
030-EIK-2022	Radio 7 S.L.	B48240931	Radio7	18.575,85
021-EIK-2022	Radio Popular de Bilbao	V48062863	Herri Irratia – Radio popular	37.151,70
025-EIK-2022	Radio Popular S.A. Cadena de Ondas Populares Españolas	A28281368	COPE	201.238,39
031-EIK-2022	Sociedad Española de Radiodifusión S.L.U.	B28016970	SER	643.962,85
003-EIK-2022	Sociedad Vascongada de Publicaciones S.A.	A20004073	Diario Vasco	876.160,99
020-EIK-2022	Tai Gabe Digitala S.L.	B75034793	Gara	309.597,52
023-EIK-2022	Tele Bilbao S.L. (Grupo Nervión TV)	B48503544	Grupo Telebilbao/Teledonostia /Televitoria	126.934,98
017-EIK-2022	Tolosako Komunikabideak S.L.	B20915468	Grupo Infosare	16.511,87
032-EIK-2022	Tosaldeko Komunikazio Taldea S.L.	B75085050	Hitza.eus / Ataria.eus	11.351,91
034-EIK-2022	Uniprex, S.A.U.	A28782936	Onda Cero	142.414,86
016-EIK-2022	Ugull 2004 S.A.	A20825808	Noticias de Gipuzkoa	182.662,54
024-EIK-2022	Urolako Komunikazio Taldea S. Koop. Elkartea	F75221226	Grupo Infosare + Hitza.eus/Ataria.eus	27.863,77
			Guzira	6.000.000,00

II. ERANSKINA

EZEZKOA JASO DUTEN ESKABIDEAK

Erakunde onuradun izateko oinarrien 3. artikuluan ezarritako betekizunak ez betetzeagatik:

Espedientea	Eskatzailea	Betetzen ez duen betekizuna
019-EIK-2022	Aiaraldea Koop. ELK.	3.1.c)
033-EIK-2022	Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.	3.1.c)
006-EIK-2022	Crónica Vasca S.L.	3.1.c)
001-EIK-2022	Dato Económico S.A.	3.1.a) y 3.1.c)
011-EIK-2022	Dato Económico S.A.	3.1.a) y 3.1.c)
002-EIK-2022	Digital Nortexpres S.L.	3.1.b) y 3.1.c)
035-EIK-2022	Dobera Euskara Elkartea	3.1.c)
037-EIK-2022	Elhuyar Fundazioa	3.1.a) y 3.1.c)
036-EIK-2022	Erroitz S.L.	3.1.c)
007-EIK-2022	Gertuko Koop Elk Txikia	3.1.c)
014-EIK-2022	Hiruka Kooperatiba Elkartea	3.1.c)
004-EIK-2022	Komunikazio Biziagoa S.A.L.	3.1.c)